



JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARITZAREN MEMORIA, EUSKADIKO UDALERRIETAN MUGIMENT TXARTELAREN PROIEKTUAREN LEHEN FASEA EZARTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEARI BURUZKOA.

1. Kontratuaren xedea:

Euskadiko Kirolaren Legeak (14/1998, ekainaren 11koak), bere printzipio gidarrietan xedatzen duenez, kirola *interés publikoko gizarte-jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizartea ondo izateko lagungarria*. Printzipio gidari horietako bat da *administrazioen eta entitate pribatuen artean lankidetzaz arduratsua egotea kirol-arloan eta, era berean, kirol-instalazioen ahalik sarerik onena planifikatzea eta sustatzea*.

Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuan xedatzen denarekin bat, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak Mugiment txartelaren proiektua garatuko du, bere eskumen-esparruaren barnean.

Mugiment txartelaren proiektuaren bidez, EAEko herritarrei EAEko udalerrietako kirol-instalazioak erabiltzeko aukera eskaini nahi zaie, guztietan txartel bakarra erabilita. Txartel hori proiektuaren kide diren udaletako kirol-zentroetako batean eskuratu beharko da lehenik. Alegia, Santurtzin bizi den pertsona batek herriko kiroldegian lortu badu Mugiment txartela, eta Sestaon lan egiten badu, eguerdian duen bi orduko tartean Sestaoko kirol-instalazioak erabili ahalko ditu Mugiment txartelari esker. Are gehiago, Sestaoko kiroldegian eskaintzen eta antolatzen diren ikastaroetan parte hartu ahal izango du, lekurik badago eta kiroldegiak lekuok eskaintzen baditu. Zerbitzu honek laguntza ematen die herritarrei, kirola egin ahal izan dezaten proiektuaren barruko edozein instalaziotan. Halaber, kirol-instalaziooi aukera ematen zaie beren zerbitzuak eskaintzeko, esaterako, kirol-eskoletan leku libreak dituztenean, eta erabiltzaile gehiagotara iritsi nahi dutenean. Bi norabideko harremana da, eta Eusko Jaurlaritza arduratzen da zerikusia duten alderdi guztien koordinazioaz.

Zerbitzu hori eskaintzeko, proiektuak oinarri du Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza izapidetzen ari den lankidetzaz-hitzarmena, zeinak, hiru foru-aldundiez gain, udal parte-hartzaileak biltzen baititu. Eusko Jaurlaritzak, beraz, bere gain hartuko du EAEko erakunde publikoak koordinatzeko ardura (foru-aldundiak eta udalak).

Proiektuak erkidegoko udalerriri guztietara iristea du xede. Horretarako, udalerririak erakartzeko prozesua egoki gauzatu behar da, Mugiment txartelaren aplikazio informatikora egokitzeko. Proiektuaren munta dela eta, faseka egingo da.

Helburua lortze aldera, udalerririak erakartzeko eta Mugiment txartelaren proiektua ezartzeko proiektu pilotua jarri zen martxan 2017an. Proiektu pilotu horri esker, gaur egun, Bilbo Handiko ezker alde ia osoa Mugiment txartelaren bitartez konektatuta dago; bederatzi udalerriri daude proiektuan erabat integratuta, eta Mugiment txartelaren urteko erabilera-fluxua 25.000 aldikoa baino gehiagokoa da.

Proiektuari jarraipena emateko, udalerriri gehiago ekimenari atxikitzeko eta EAEko herritarrei zerbitzu zabalagoa emateko, proiektuaren lehen fasea jarri nahi da abian. Horretarako, enpresa bat behar da udalerriri gehiagotara iritsi, eta horiek Mugiment txartelaren plataforman sartzea lortzeko. Lehen fasean, EAEko herritarren % 40arengana iritsi nahi da.

Enpresa adjudikaziodunari, besteak beste, proiektuaren lehen fasea diseinatzea eskatuko zaio, eta enpresak berak proposatuko du proiektua hedatzeko eremua.



Horrenbestez, kontratu honen xedea da EAEko udalerrietan Mugiment txartelaren proiektuaren lehen fasea ezartzeko zerbitzua ematea. Horretarako, enpresa lizitatuak antolaketa-prozesu bat proposatuko du, 24 hileko epean udalerrri-sarea handitzea izango duena helburu. Ezarpenak barnean hartuko ditu udalerriak erakartzea, Mugiment txartelaren proiektuan sartzea (plataforman), plataformaren mantentze-lanak egitea eta erabiltzaileei erantzun teknikoa ematea.

2. Lotekako banaketa

Ez zaio beharrezko iritzi kontratua lotetan banatzeari; beraz, kontratuaren xede osoaren lizitazioa egingo da. Kontratuaren xedea ez da lotetan zatitzen prestazioa bakarria delako; Mugiment txartelaren proiektua ezartzeko lehen fasea. Ondorioz, kontratuaren xedean sartzen diren lanak modu independentean egiteak xede hori ondo gauzatzea eragotziko luke ikuspuntu tekniko batetik (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea - aurrerantzean, SPKL-, 99.3 artikulua).

Kontratu honetan, enpresa adjudikaziodunak udalerriak erakartzeko eta Mugiment txartelaren proiektuan integratzeko programa bat diseinatu beharko du; alegia, udalekin harremanetan jarri beharko du, sistema informatikoa integratzen lan egin, ager daitezkeen traba teknikoak konponbidea bilatu, udal-instalazioetako langileei aplikazio informatikoa erabiltzen eta egon daitezkeen arazoei irtenbidea ematen irakatsi, aplikazio informatikoa eguneratu, aplikazioak ekar ditzakeen arazoak konpondu, proiektuaren erabiltzaileei arreta eskaini (kirol-instalazioetako profesionalak eta erabiltzaileei) eta beharrezkoak izan daitezkeen gainerako zerbitzuak eskaini.

Horregatik, ezinbestekoa da enpresa bera arduratzea kudeaketa osoaz, batetik, udalerriak proiektuan behar bezala integratzeko eta, bestetik, erabiltzaileekiko harremanak eta haiei emandako erantzunak behar bezalakoak izateko. Bestalde, kontratatu den zerbitzuaren ordainketa adjudikaziodunak lortu dituen emaitzen arabera egingo da; alegia, sistemari atxiki zaizkion udalerrri kopuruaren arabera, eta, ondorioz, mantentze- eta arreta-zerbitzua ere egongo dira integrazioan lortutako emaitzaren mende; zenbat eta udalerrri gehiago atxiki, orduan eta mantentze-lan eta arreta informatikoko lan handiagoa.

Gainera, zerbitzu guztia batera eskainiz gero, Administrazio honek aurreztu egingo du kostu materialetan eta langile-gastuetan, enpresa bakarrera jota. Hori horrela, Konstituzioan eta SPKLn jasota dagoen gastu efizientearen printzipioaren arabera izango da jokaera.

3. Kontratuaren beharra

Kontratu beharrezkoa da kontratuaren xedea (EAEko udalerrietan Mugiment txartelaren proiektuaren ezarpen-zerbitzua) bat datorrelako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari esleitutako eskumenekin eta Kirolaren EAEko Legearen printzipio gidariekin; izan ere, esan dugun bezala, beharrezkoa da *administrazioen eta entitate pribatuen artean lankidetzaren arduratsua egotea kirol-arloan* eta, era berean, *kirol-instalazioen ahalik sarerik onena planifikatzea eta sustatzea*.

Horretarako, EAEko kirol-instalazioak aplikazio informatiko baten bitartez konektatuko dituen proiektu bat jarri da abian, herritarrak, txartel bakarria erabilita (Mugiment txartela), instalazio



horietan guztietan sartu ahal izan daitezen, eta nahierara erabil ditzaten. Era berean, instalazioon titularrek beren zerbitzuak eskaini ahalko dituzte, batik bat, herriko erabiltzaileek beraiek bete ez dituzten leku libreak badaude.

EAEEn, kirol-instalazioen koordinazioaren ardura EAEko administrazio orokorrari dagokio. Horrek, besteak beste, EAEko kirol-instalazioen errolda kudeatzen du, eta lankidetzan dihardu gainerako erakunde publikoekin instalazio horien plangintzan eta koordinazioan. Bestalde, 2017. eta 2018. urteetan gauzatutako proiektu pilotuak harrera ona izan du egin den udalerrietan, batik bat herritarren aldetik, Mugiment txartela erabiltzen baitute kirol-jardunerako gainerako baliabideekin batera.

Zerbitzu hori ezin daitekeenez eskaini aplikazio informatikoen kudeaketan espezializatutako hirugarren teknikariek parte hartu gabe, zerbitzuaren kontratazioa lehiaketa publiko bidez egitea premiazkoa da.

4. Bitarteko nahiko ez izatea

Aurreko apartatuan adierazi den bezala, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren giza baliabideak eta baliabide materialak ez dira nahikoak zerbitzua emateko. Kontratatu beharreko zerbitzuek aplikazio informatikoen kudeaketako espezialisten parte hartzea eskatzen dute, eta zuzendaritza sustatzaileak ez du profil horretako langilerik. Hori guztia dela-eta, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren pertsonalak eta baliabide materialak ez datoz bat zehaztasun horiekin; horregatik, adierazitako baldintzak betetzen dituen beste entitate bat kontratatu behar da.

5. Kontratua egin aurretik bete beharreko baldintzak betetzea

Baliabideen beharra eta urritasuna direla-eta adierazitakoan oinarrituz, hau adierazten dugu:

1. Kontratazio hau beharrezkoa da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzaren zerbitzu bati dagozkion zerbitzuetako bat emateko.
2. Jarduera hori kontratatu daitezkeen zerbitzuen artean dago, seigarren jarraibidearen arabera eta xedeak ez ditu bosgarren jarraibidearen arabera baliabide propioekin eman behar den prestaziorik barne hartzen.
3. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dituen giza baliabideek eta baliabide teknikoek ezin dute beren gain hartu zerbitzu horiek ematea, eta, gainera, ez da komeni, edo ezinezkoa da, berrantolaketari ekiterik.
4. Kontratua prestatzeko fasean egin diren kontratu-dokumentuek zortzigarren instrukzioa betetzeko bermeak jasotzen dituzte (zerbitzuak kontratatzean jarduera onak egiteari buruzkoa da zortzigarren instrukzioa, langileen legez kanpoko lagapena gertatzea saiheste aldera).

6. Kontratazio-organoa

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren izenean diharduen kontratazio-organoa Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren (egungo Kultura eta Hizkuntza Politika Saila) egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 5.4 artikulua ematen dizkion ahalmenak erabiliz.



7. Kontratu mota

Kontratuaren xedea kontuan hartuta, zerbitzu-kontratu bat egingo da, SPKLren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. CPV/CPA kodea

Prestazioa honen barruan legoke: 72600000-6 CPV, Informatika-laguntza eta kontsultoretza-zerbitzuak.

9. Arau harmonizatuarekiko loturarik eza

SPKLren 22.1.b) artikuluan xedatutakoan oinarrituz, kontratu hau ez da arau harmonizatuaren pean egongo, ez duelako gainditzen zerbitzu-kontratuarentariko aurreikusitako atalasea.

10. Adjudikazio-prozedura:

Adjudikazio-prozedura SPKLren 156. artikuluan eta hurrengoetan araututako prozedura irekia izango da.

11. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua

Kontratuaren xede den prestazioaren ezaugarriak eta merkatuko prezioak aztertu ondoren, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak kontratuaren prezioa zenbatetsi du: EHUN ETA HIRUROGEI MILA EURO (160.000,00 euro), % 21eko BEZa kontuan hartu gabe; alegia, EHUN ETA LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ETA SEIEHUN EURO (193.600,00 euro) % 21eko BEZa kontuan hartuta. Aurrekontua bitan banatuko da:

| | PREZIOA BEZa gabe | %21eko BEZa | PREZIOA BEZarekin |
|--|------------------------------|------------------------|------------------------------|
| Plataforma informatikoen mantentze-lanak | 12.000,000 | 2.520,00 | 14.520,00 |
| Udalerriak erakartzea eta integratzea, eta, erabiltzaileentzako arreta-zerbitzua | 148.000,00 | 31.080,00 | 179.080,00 |

Plataformen mantentze-lanen prezioaren kalkulua oroharreko prezioaren bidez burutzen da eta Udalerriak erakartzea eta integratzea, eta, erabiltzaileentzako arreta-zerbitzuaren prezioa kalkulatzeko banakako prezioak erabili dira.

Proposatutako gehieneko prezioa kalkulatzeko kostuen azterketa bat egin da eta kontuan izan da horrelako zerbitzuak kontratatzeko aurreko kontratazio-espeditanteetan bildutako eskarmentua (Mugiment txartelaren proiektu pilotua egin da lehenago). Horrela, bermatu egiten da preziook merkatuaren egungo balioei erantzuten dieten prezio lehiakorrak izatea, eta sektore ekonomiko horretan diharduten enpresen lehia askea ahalbidetzen da. SPKLren 100.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honela banakatzen dira zuzeneko eta zeharkako kostuak:



| ZUZENEKO KOSTUAK | | | | | ZEHARKAKO KOSTUAK |
|-------------------------------|--|--------------------------------------|--------------------|--|--------------------|
| Pertsonal-gastuak | | Material-gastuak | | | Enpresaren mozkina |
| Pertsonalaren soldata gordina | Erantzukizun zibileko aseguruak; Gizarte Segurantzako Ekarpinak, Mutualitateak | Lana egiteko ekipamendu informatikoa | Bulegoko materiala | Udalerrietarako lekualdatze-/bidaiak-gastuak | |
| % 55 | % 20 | % 10 | % 5 | % 5 | |
| 106.480,00 | 38.720,00 | 19.360,00 | 9.680,00 | 9.680,00 | 9.680,00 |

Gehieneko aurrekontua urteko aurrekontu kopuru hauetan banatzen da:

| MUGIMENT TXARTELAREN PROIEKTUAREN LEHEN FASEAREN EZARPEN-ZERBITZUA | | | | | |
|--|-------------------|------------------|------------------|----------------------|------------------------------|
| EPEA | EZARPENA | MANTENTZE-LANAK | LAGUNTZA | GUZTIRA, BEZ-IK GABE | GUZTIRA, BEZ-A BARNE (% 21): |
| 2020 (12 hilabete) | 51.625,00 | 6.000,00 | 22.375,00 | 80.000,00 | 96.800,00 |
| 2021 (12 hilabete) | 51.625,00 | 6.000,00 | 22.375,00 | 80.000,00 | 96.800,00 |
| GUZTIRA | 103.250,00 | 12.000,00 | 44.750,00 | 160.000,00 | 193.600,00 |

Aurrekontu hau orientagarria besterik ez da, eta, aurrekontu erreserbak egiteko baliagarria bada ere, ez dakar enpresa adjudikaziodunarekiko inolako fakturazio konpromisorik. Lizitatzailer lehiakideek unitateko prezio hauen arabera eskainiko dituzten euren eskaintzak:

- Erakartzeko eta atxikitze lanaren prezioa, udalerrri motaren arabera.
- Plataformaren mantentze-lanen hileko prezioa.
- Erabiltzaileei arreta emateko lanaren urteko prezioa (prezioa, udalerrri).

Horrenbestez, taula honetan zehazten dira Mugiment txartelaren proiektuko lan-alor bakoitzeko gehieneko prezioak:

| LAN MOTA BAKOITZERAKO PREZIO UNITARIOAK | | |
|--|----------------------------|--------------------|
| Lan mota | Gehieneko prezioak eurotan | |
| | Unitarioa | BEZa barne (% 21): |
| 1. Udalerrriak erakartzea eta integratzea | | |
| 1.1 Probintzia-hiriburua | 8.000,00 | 9.680,00 |
| 1.2 Udalerrriaren biztanleria > 25.000 | 6.000,00 | 7.260,00 |



| | | |
|---|----------|----------|
| 1.3 Udalerriaren biztanleria 10.000 < 25.000 | 2.000,00 | 2.400,00 |
| 1.4 Udalerriaren biztanleria < 10.000 | 1.500,00 | 1.800,00 |
| 2. Plataforma informatikoen mantentze-lanak | | |
| Plataforma informatikoen hileko mantentze-lanak | 500,00 | 605,00 |
| 3. Kide diren udalerrietako erabiltzaileentzako arreta | | |
| Proiektuan integratutako udalerrietako urteko arreta | 500,00 | 605,00 |

**** Adierazitako gehieneko aurrekontu unitarioa gainditzen duten eskaintza guztiak lehiaketatik kanpo geratuko dira.**

Ezin daitezke *a priori* zehaztu lizitatuak proposatu eta egingo dituen plangintza eta lanak, eta, gainera, horien ordainketa kasuan kasuko emaitzen mende egongo da; alegia, emaitza kontuan hartuta (udalerria egiaz integratzea) ordainduko zaio lizitatuari. Ondorioz, **eskuratutako zerbitzuak bakarrik ordainduko ditu Administrazioak.**

Kontratutik eratorritako gastua aurrekontuko partida honetatik egingo da: **19.0.1.10.03.0031.1.238.99.45120.004/S MUGIMENT TXARTELA EZARTZEA EAE-KO UDALERRIETAN.**

12. Kontratuaren balio zenbatetsia

Aurreko apartatuan egindako kalkulua kontuan harturik –lizitazioaren gehieneko aurrekontua, gastuen banakapenarekin–, eta SPKLren 101. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, kontratuaren balio zenbatetsia EHUN ETA HIRUROGEI MILA EURO da (160.000,00 euro). Honela banatzen da kontratuaren balio zenbatetsia:

| | |
|---|------------------------|
| Lizitazioaren aurrekontua (BEZik gabe) | 160.000,00 euro |
| Aurreikusitako aldaketen zenbatekoa (BEZik gabe) | Ez da behar |
| Lizitatuak ordaindu beharreko sarien edo primen zenbatekoa (BEZik gabe) | Ez da behar |
| Aukeren zenbatekoa (BEZik gabe) | Ez da behar |
| Luzapena (BEZik gabe) | Ez da behar |
| BALIO ZENBATETSIA, GUZTIRA | 160.000,00 euro |

13. Prezioa ordaintzeko modua

Faktura bat emango da hiru hilean behin, aurreko hiruhilekoan egindako lanei dagozkien zenbatekoa adierazita; faktura horretan, zehatz-mehatz adierazi beharko du zer zerbitzu eman



dituen, eta zerbitzu horien ziurtagiriak ere aurkeztu beharko ditu, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak eskatuz gero.

14. Prezioak berraztertzea

Ez dago aurreikusita prezioak berrikustea.

15. Kontratuaren exekuzio-epea

Kontratuak 24 hilabeteko iraupena izango du, sinatzen denetik zenbatzen hasita.

16. Kontratuaren luzapena

Ez dago aurreikusita kontratua luzatzea.

17. Kaudimena egiaztatzeko baldintzak

Kaudimen-irizpideak:

Lehiaketan parte hartzeko eta eskaintza bat egiteko interesa dutenek gaitasun teknikoa eta kaudimen ekonomikoa egiaztatzea beharko dituzte, SPKLren 87. eta 90. artikuluen arabera.

Kontratuaren xede den zerbitzuaren edukiei eta dimentsio praktikoari erreparatuz, kontratatu beharreko zerbitzuaren eremuan esperientzia egiaztatua duen enpresa baten kontratazioa bilatzen da. Lizitatzailleak kaudimena eta gaitasuna egiaztatuko ditu, jarraian deskribatzen den dokumentazioa aurkeztuz:

- **Kaudimen ekonomikoa:**

Azken hiru urteetan kontratuaren xede den eremuan izandako urteko negozio-bolumena zehaztuko da, zeina 100.000 euro edo gehiago izan beharko den gutxienez.

- Urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, onartutako eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak aurkeztuko dira, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean erregistratutako kontuak aurkeztuko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatu dituen inbentario- eta kontu-liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena. Era berean, behar bezala justifikatuta, kontratuaren xede den eremuko urteko negozio-bolumena egiaztatzeko nahikoa irizten zaion beste edozein dokumentu aurkeztu ahal izango dute.

- **Kaudimen teknikoa:**

Kontratuaren xede diren lanen edo zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten eta azken hiru urteetan egindakoak diren lan edo zerbitzu nagusien zerrenda, honako hauek zehaztuz: zenbatekoa, data eta jasotzaile publiko edo pribatua. Kaudimena egiaztatzeko, lizitatzailleak azken bost urteetako gehieneko gauzatze-urtean antzeko xedea duten eta gutxienez 60.000,00 euroko baturara iristen diren kontratuak eginda izan beharko ditu:



- Zerbitzu horiek honela egiaztatuko dira: hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiri bidez; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark luzatutako ziurtagiriaren bitartez eta, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, zeina aurkeztuko baita adierazitako prestazioa egin dela egiaztatzen duten eta enpresariaren beraren esku dauden agiriek lagunduta; behar izanez gero, ziurtagiri horiek zuzenean komunikatuko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.
- Kontratatzailea enpresa sortu berri bat bada (bost urtetik beherako antzinatasuna badu), kontratuan parte hartuko duten pertsonal teknikoak edo unitate teknikoak zehaztuko dira kaudimen teknikoak egiaztatzeko, bai enpresan integratutakoak bai integratuta ez daudenak, kalitate-kontrolaz arduratuko diren pertsonak bereziki aipatuz. Edonola ere, enpresek profil hau izan beharko dute:
 - Informatikako edo Telekomunikazioetako gradua (edo baliokidea) egiaztatuta duen goi-mailako tituludun bat.

18. Adjudikazio-irizpideak

Proposamenak balioesteko, kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onenaren printzipioko jarraibideak erabiliko dira (SPKLren 145.2 artikulua), irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera.

Prezioa ez da izango balorazio-irizpide nagusia, lizitatzailleek zerbitzuetan eta produktuetan proposatzen duten kalitatearen nolakotasuna izango baita erabakigarria, Administrazioak Mugiment txartelaren proiektuaren ezarpenaren lehen faserako aurreikusitako helburuak betetzeari begira. Helburuok memoria honetan eta baldintza-agiri teknikoetan deskribatzen dira.

Kontratuaren xedeak, hots, ezarpen-prozesuak, barnean hartuko ditu udalerrriak erakartzea, Mugiment txartelaren proiektuan sartzea (plataforma digitalean), plataformaren mantentze-lanak egitea eta erabiltzaileei erantzun teknikoa ematea. Ondorioz, kontratuaren xedea propio gauzatzeko konponbide tekniko bat eskainiko da lizitatzailleek egingo duten proposamen teknikoan.

Irizpide objektiboei 51 puntu emango zaizkie, eta eskaintza teknikoari, aldiz, 49 puntu.

18.1. Irizpide ekonomikoak:

Enpresa lizitatzailleek eskaintza aurkeztuko dute, lizitazioaren oinarriko aurrekontuan jasotzen diren lanetako bakoitzaren prezio unitarioa adierazita. Eta eskaintza



ekonomikoaren balorazioa (51 puntu) lizitatzailerako bakoitzak bi metodoak aplikatuta apartatu bakoitzean lortutako puntuen baturaren bitartez egingo da:

- a. Lizitatzailerako eskaintza unitario guztien baturan oinarrituz (BEZik gabe) (30 puntu). Lizitatzailerako taula atxikia erabiliko dute eskaintza ekonomikoa egiteko.

| LAN MOTA BAKOITZERAKO PREZIO UNITARIOAK | | |
|---|---------------------|----------------------|
| Lan mota | Eskaintza unitarioa | Gehieneko puntuazioa |
| 1. Udalerriak erakartzea eta integratzea | | |
| 1.1 Probintzia-hiriburua | | 5 |
| 1.2 Udalerriaren biztanleria > 25.000 | | 5 |
| 1.3 Udalerriaren biztanleria 10.000 < 25.000 | | 5 |
| 1.4 Udalerriaren biztanleria < 10.000 | | 5 |
| 2. Plataforma informatikoen mantentze-lanak | | |
| Plataforma informatikoen hileko mantentze-lanak | | 5 |
| 3. Kide diren udalerrietako erabiltzaileentzako arreta | | |
| Proiektuan integratutako udalerrietako urteko arreta | | 5 |
| PUNTU GUZTIEN BATURA | | 30 |

Horretarako, bana-banaka baloratuko dira prezio guztiak, eta ondorengo formula aplikatuko da, eta 5 puntu emango zaizkio lan bakoitzeko eskaintza onenari.

$$\text{puntuak} = \frac{5 \times \text{eskaintzarik onena}}{\text{Baloratzeko eskaintzaren prezioa}}$$

Lan bakoitzeko egingo da eragiketa, eta lizitatzailerako apartatu horretan pilatutako puntuak batuko dira.

- b. Simulazio bat egingo da, aldagai hauekin: udalerri batzuk integratzea, plataformaren urtebeteko mantentze-lanak eta bezeroei urtebetean emandako arreta. Honela egingo da simulazioa:

- Proiektuaren ezarpena:
 - Hiriburu batean,
 - 3 udalerri >25.000 biztanle,
 - 7 udalerri 10.000 < 25.000 biztanle artekoak
 - 5 udalerri < 10.000 biztanle.
- Urtebetean 25 udalerrietako erabiltzaileei emandako arreta.



- Plataformaren urtebeteko mantentze-lanak.

Simulazioak emandako kostua batuko da, eta 21 puntu emango zaizkio eskaintza onenari, eta formula hau aplikatuko da:

$$Puntuak = \frac{21 \times (\text{Eskaintza onenaren prezioa})}{(\text{Baloratu beh eskaintzaren prezioa})}$$

**Eskaintza onenaren prezioa = proposamen guztien simulazio baxuenaren guztizko prezioa

***Baloratu beharreko eskaintzaren prezioa = baloratu beharreko simulazioaren guztizko prezioa

Formulen justifikazioa:

Formula horiek hautatu dira balioespena hainbat irizpide ekonomiko aplikatuz egingo dela bermatzeko. Erabilitako metodoetako bakoitzean, eskaintzarik onenari gehieneko puntuazioa emango zaio, eta gainerakoei proportzionalki dagokiena emango zaie. Horrela, eskaintza ekonomikoak bi aldaera izango ditu; lehen, lan mota guztietan preziorik onenak edukitzeko aukera, eta, bigarrena, preziorik onena balioestea kontratuaren praktikan.

Eskaintza ekonomikoa baxuegitzat jotzeko irizpideak:

Prestazioaren nolakotasuna dela eta, bidezko iritzi zaio eskaintza ekonomikoa baxuegitzat jotzeko irizpideak ezartzeari; horrenbestez, anormaltasun presuntzioa edo ustea izango dute lizitatuzaileen aurrekontuaren batezbesteko aritmetikoa baino % 15 beherago badaude.

18.2. Proposamen teknikoa

Proposamen teknikoak 49 puntu jasoko ditu gehienez, ondorengo lerroketan xedatutakoaren arabera banakatuta. Lizitatuzaileek baldintza-agiri teknikoetan adierazitako zerbitzuetarako proposamena aurkeztu beharko dute:

- a) Egin beharreko integrazio-lanaren definizioa eta diseinua (25 puntu)
Baloratuko da proposamen metodologikoa noraino den egokia baldintza-agirian zehaztutakoei erantzuteko, kontratuaren xedea betetze aldera.
- b) Prozesuaren antolaketa eta kudeaketa (10 puntu, gehienez)
Antolaketaren egokitasuna baloratuko da; batik bat, integrazioaren bilakaeraren proposamena, haren erritmoa eta hedapena.
- c) Balio erantsia. Proposamen osagarrien kalitatea eta kantitatea (gehienez 14 puntu).

Proposamen teknikoak aipatu alderdiak garatuko ditu, eta udalerrriak proiektura biltzeko lan-proposamena egingo du. Proposamen horrek barnean hartuko ditu hala ezarpen-espazioa, -epea eta -erritmoa, nola kudeatuko diren alderdi tekniko-informatikoak, baita plataforman nahiz aurretiazko erakartze- eta integratze-lanetan egin litezkeen hobekuntzak ere.



19. Lizitazioa egiteko baliabideak

Lizitazioa elektronikoki egingo da.

20. Giza baliabideak

Arrazoia edo harremana edozein dela, enpresa adjudikaziodunarekin etengabe edo aldi baterako kolaboratzen duten pertsona guztiak haren ardurapean ariko dira soilik, eta haren menpe egongo dira funtzionalki eta organikoki. Hortaz, ez dute inolako lan-harremanik izango Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin. Enpresa adjudikaziodunak, pertsona horiek direla eta, bere egin beharko ditu indarrean den legediak eragiten dituen erantzukizunak edota gizarte-arloko, lan-arloko edo zerga-arloko kostu guztiak; Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, ostera, ez du inolako erantzukizunik izango, arlo horietan.

Ondorioz, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari ez zaio inolako erantzukizunik iritsiko, hirugarrenei kalterik eragiten bazaie enpresa adjudikaziodunaren legezko ordezkarien, laguntzaileen (berdin izanik zer tituluren arabera) edo enpresa hari zerbitzuak ematen dietenen egitez edo omisioz.

Halaber, enpresa adjudikaziodunak lan-arriskuen prebentzioaren alorrean indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu.

Gainera, enpresa adjudikaziodunak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Produkzio-antolamendu propioa izatea, beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izatea, eta baliabide horiek erabiltzea kontratatutako jarduera garatzeko.
- Bere gain hartzea enpresa-jardueraren garapenak dakartzan arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak.
- Zuzenean baliatzea antolamendu- eta zuzendaritza-ahalmenak bere langileek garatzen duten lanaren gainean, eta, bestalde, langile autonomoen kasuan, lana autonomiaz eta erabateko erantzukizunez egitea, Administrazioaren antolakuntza- eta zuzendaritza-esparrutik at.

21. Kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko edo entregatzeko lekua

Prestazioak kontratistaren egoitzan egingo dira eta, eskatzen zaionean, bilerak Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak adierazitako lekuan egingo dira.

22. Behin-behineko bermea

Ez da eskatzen behin-behineko bermerik.

23. Behin betiko bermea

Lan finkoetarako berme gisa, lizitazio-prezioaren % 5 eskatzen da, BEZik gabe (SPKLren 107.1. art.). Finkoak ez diren lanetarako berme gisa, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %5 eskatzen da BEZik gabe (SPKLren 107.3. art.).

24. Prestazioen berme-epea



Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 210.3 artikuluan aurreikusi bezala, berme-epea salbuesten da kontratu honetarako. Kasu honetan, bermea ez da beharrezkoa, batetik, kontratuaren izaera eta ezaugarriengatik eta, bestetik, emango diren prestazioak kontratua gauzatzen den bitartean berrikusiko dituelako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak.

25. Kontratua betearazteko baldintza bereziak

SPKLren 202. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, honako Lege honen aginduak errespetatuta egingo da kontratua: *4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Beldintasunerakoa*. Horren ildotik, enpresa kontratatzaileak genero-ikuspegia txertatuko du lana egin eta aurkezterakoan, eta hizkuntzaren erabileran sexu-diskriminazioko elementuak saihestuko ditu Administrazioarekiko edo dopinaren aurkako prozedura bateko interesdunekiko komunikazioetan.

26. Mendekotasun funtzionala eta organikoa

Zerbitzua ematen duten pertsonen enpresa adjudikaziodunarekin izango dute harreman funtzional eta organikoa, eta inoiz ez Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin.

27. Zerbitzua eman eta jaso izana eta berme-epea egiaztatzea

Kontratua gauzatzeko aldian, Administrazioak beretzat gordetzen du prestazioa zuzen egiten dela egiaztatzeko eskubidea, bai eta prestazio hori baldintza administratiboan agirian, oinarri teknikoan agirian eta adjudikaziodunaren eskaintzan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatzeko ere. Alde horretatik, azaleratzen diren gorabeherak konpondu edo egokitu beharko ditu adjudikaziodunak, adierazten zaion epearen barruan.

28. Kontratua suntsiaraztea, kontratistak zerbitzu-prestazio egokiaren betebeharra ez betetzeagatik.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak kontratuaren jarraipena egingo du, egiaztatzeko ea ematen diren zerbitzuak bat datozen zuzendaritzak zehaztutako helburuekin.

Enpresa lizitatzzaileak nahitaez bete beharko ditu Mugiment txartelaren proiektuaren ezarpenaren lehen faserako zehaztu diren helburuak, alegia, udalerrri kopuru arrazoizko bat atxikitzea proiektuari.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, kontratu honen bidez, helburu hau du: EAEko biztanleen gutxienez % 40ari Mugiment txartelari loturiko zerbitzuak eskaintzea.

Horrenbestez, zuzendaritzak egiaztatzen badu lizitatzzailea aurreikusitako helburuetara nekez iritsiko dela, kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du, kontratistak zerbitzu-prestazio egokiaren betebeharra ez betetzeagatik, SPKLren 211., 212. eta 213. artikuluetan xedatutakoarekin bat.



Hiruhilean behin burutuko diren egiaztapenen bidez bermatuko da kontratatutako prestazioaren betetze maila eta ezarritako helburuena.

29. Kontratua aldatzea

Ez da kontratu-aldaketarik onartuko.

30. Datuen konfidentzialtasuna

Kontratista behartuta dago kontratuaren edukia isil-gordean edukitzera, eta konfidentzialtasunez lantzerako eskura dituen datu guztiak, pertsonalak izan zein ez izan. Ildo horretan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua bete beharko da (2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua, Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra, indargabetzen duena), bai eta hura garatzeko araudia ere. Konfidentziazat joko dira enpresa adjudikaziodunak kontratu hau dela eta ezagutzen dituen datu guztiak, eta gorde egin beharko da haien identitatea eta sekretua. Isil-gordean eduki beharra urratzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, kalte-galeren ondorioez gain.

Enpresa adjudikaziodunak ezin izango du aplikatu edo erabili kontratuaren ondorioz lortu duen datu pertsonalik kontratuan agertzen den xedeaz bestelakoetarako; eta datu horiek ezin izango dizkio inori laga, ezta kontserbatzeko bada ere.

Kontratazioak kontratista izaera pertsonaleko datuetara sartzea badakar, eta datuon tratamenduaren arduraduna erakunde kontratatzailea bada, kasu horretan hura hartuko da tratamendu-eragilezat.

Kontratu honek arautzen duen prestazioa eman eta gero, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari eman beharko zaizkio erabilgaitako datu pertsonalak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainak 3

Jon Redondo Lertxundi
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaria



I. ERANSKINA: Lizitatzailen proposamen ekonomikoa.

| LAN MOTA BAKOITZERAKO PREZIO UNITARIOAK | | |
|---|----------------------------|--------------------|
| Lan mota | Gehieneko prezioak eurotan | |
| | Unitarioa | BEZa barne (% 21): |
| 1. Udalerriak erakartzea eta integratzea | | |
| 1.1 Probintzia-hiriburua | | |
| 1.2 Udalerriaren biztanleria > 25.000 | | |
| 1.3 Udalerriaren biztanleria 10.000 < 25.000 | | |
| 1.4 Udalerriaren biztanleria < 10.000 | | |
| 2. Plataforma informatikoen mantentze-lanak | | |
| Plataforma informatikoen hileko mantentze-lanak | | |
| 3. Kide diren udalerrietako erabiltzaileentzako arreta | | |
| Proiektuan integratutako udalerrietako urteko arreta | | |